



kontsumoBIDE

KONTSUMOKO
EUSKAL INSTITUTUA
INSTITUTO VASCO
DE CONSUMO



Erakunde autonomiarena
Organismo Autónomo del

ELISKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Etxeko aurrezpena

Kontsumoko Prestakuntza Adinekoentzat



- Aurrekontua
- Kontratatzerakoan
- Erosterakoan
- Egunerokoan

Gero eta zailagoa da “hilabete-amaierara” iristea. Azken urte hauetan erosahalmena galdu dugu, eta beraz gastuak kontrolatzea premia bihurtu zaigu.

Zure diru-sarrera eta gastuak orekatzeko lagungarri izan daitezkeen zenbait aholku eskainiko dizkizugu jarraian.

Aurrekontua

Aurrekontu bat eginez eta gastuen kontrola eramanez errazago ikusiko dugu non aurreztu dezakegun.



Apuntatu zure gastu guztiak eta banatu honako hauetan:

- ▶ **Nahitaezko gastuak:** saihestu edo murriztu ezin ditzakedanak (hipoteka, maileguak etxebizitza-aloairua, etab.).
- ▶ **Beharrezko gastuak:** saihestu ez baina murriztu ditzakedanak (gasa, argia, janaria, etab.).
- ▶ **Noizbehinkako gastuak:** behar izanez gero murriztu edo erabat kendu ditzakedanak (bidaia, etxetik kanpoko bazkariak, zinema, antzerkia, etab.).

Gastuak aztertu eta gero, beharrezkoa ez denetik kendu ahal duzun guztia, eta beharrezkoa dena ere murriztu ahal duzun neurrian, dossier honetan jasotako aholkuei jarraituz.

Interesgarria litzateke **aurrezte**a **nahitaezko gastu finkotzat** hartzea, ustekabeak gainditzeko oso lagungarria izan daiteke.

Kontratatzera

Kontratatu aurretik:

- Definitu zure **benetako premiak** zein diren.
- **Eskatu idazki bidez** zenbait konpainiari beren eskaintzak.
- **Konparatu** eskaintza guztiak, zure premietan oinarrituz.
- Egiaztatu **iraute-konpromisorik** dagoen edo ez, eta horrek baja aurreratugatik zehapenik ba ote dakarren.




- **Informa zaituz** adinekoentzako **deskontu** edo abantailak eskaintzen ote dituzten.
- Ziurtatu **ez duzula kontratatzen** interesatzen ez zaizun zerbitzu osagarriak edo gehigarriak (azken zenbatekoa garestiago dezakete nabarmen).
- **Deskonturik** eskaintzen badizute, galdetu **zer zatiri** aplikatzen zaizkion eta **zenbat denboran** (litekeena da benetako abantaila ez izatea eta zerbitzu osagarriren baten kontratazioa eskatzea).
- Ez ahaztu **“letra txikia”**

Eskatu eta gorde **kontratuaren idatzizko kopia bat**.

Telefonoz edo Internetez kontratatzen baduzu, gogoratu **atzera egiteko 14 egun** daukazula.

Kontratatu ondoren:

- **Berrikusi fakturak** aldiaren behin, eta egiaztatu kontratatuari lotzen zaizkiola.
- **Errepasatu kontratuak**, prestazioei eta prezioari dagokienez zaharkituta geratu ote diren egiaztatzeko. Hala bada, eskatu eskaintzak beste konpainia batzuei, eta **negoziatu**.



Erosterakoan

- Egin **erosketa-zerrenda** eta hartara mugatu, itsumustuan erostea saihestuko duzu horrela.
- **Konparatu** zenbait establezimendutako **prezioak** eta erosi produktu bakoitza merkeenean, kiloko edo litroko duen prezioan oinarrituta.
- **Aztertu eskaintzak**, benetan interesatzen zaizkizula eta zuretzat onuragarriak direla egiaztatzeko.
- **Ez erosi behar baino bilgarri handiagoa daramaten produktuak**, azken prezioa asko garestitzen dutelako.
- **Hautatu etxetresna elektriko efizienteak** (gutxiago gastatzen dute lan bera egiteko), A+ energia-klasea edo maila handiagoko beste bat daramatenak.



Egunerokoan

Elektrizitatea eta gasa



- Etxeko temperatura egokia 20°C da egunez eta 15°C gaez. Hortik gorako gradu bakoitzeko, gastua % 8 igotzen da.
- Ohiko bonbillen ordez bonbilla efizienteago batzuk jarritz, argiaren fakturan 8 euro aurreztu dezakegu urtean bonbilla bakoitzeko. Egin zure kalkuluak.
- Jari etengailua daramaten erregletak “standby” dauden aparatu elektrikoen “ezkutuko kontsumoa” saihesteko, horrek gastua % 10 handiagoa izatea ekar dezake-eta.
- Hautatu kolore argiak hormetarako, eta isolatu ongi ate eta leihoak.
- Berrikusi kontratatutako potentzia, eta jaitsi handiegia bada.

Ura



- Tantaka dagoen txorrotak 10.000 litro gal ditzake urtean, gutxi gorabehera, konpondu lehenbailehen.
- Txorrotetan aireztagailuak jarritz kontsumoa % 50 ere jaitea lor dezakegu.
- Ez jarri martxan ontzi-garbigailua edo garbigailua erabat bete arte.

Telefonia



- Hautatu zure benetako premietara ondoen egokitzen den tarifa.
- Murriztu tarifikazio osagarriko zenbakietarako deiak, fakturaren gailurik gabeko saihesteko.

Finantza eta aseguruak



- Jo kreditura edo zure erosketak finantzatzera behar-beharrezkoa denean bakarrik.
- Informa zaitetz ongi mailegu bat, finantziario bat edota finantza-produktu bat eskatzean kobratuko dizkizuten komisio eta gastuen inguruan, eta negoziatu jaitsi edo ezaba ditzaten.
- Argi eduki zure aseguruak zer estaltzen duen, eta ziurtatu zuri interesatzen zaizkizun estaldurak barne hartuta daudela.

Informazio gehiago:

www.kontsumobide.eus

www.comparadorofertasenergia.cnmec.es

